

'Editatu baimenak' fitxa

Internet Explorer-ek, sinatutako edo sinatu gabeko Java aplikazioek eskatutako eduki eta baimen guztiak nola kudeatuko dituen zehazten du.

Sinatutakoen eta Sinatu gabekoen baimenen ezarpenek ondorengo baimenetan dute eragina:

[Fitxategi guztien atzipena](#)

[Sareko helbide guztien atzipena](#)

[Exekutatu](#)

[Elkarrizketak](#)

[Sistema-informazioa](#)

[Inprimaketa](#)

[Hazka egiteko espazio babestua](#)

[Erabiltzaileari zuzendutako fitxategi S/I](#)

Sinatu gabekoen baimenak

Baimenak banaka ezar ditzakezu **Exekutatu sinatu gabeko edukia** ezarpena **Exekutatu harea-kutxan** gisa ezarriz. Ondoren, baimen bakoitza banaka berrezar dezakezu **Desgaitu** edo **Gaitu** gisa. **Exekutatu sinatu gabeko edukia**ren azpian **Desgaitu** edo **Gaitu** zehazten baduzu, **Sinatu gabeko baimen gehigarriak** saileko baimen guztiek erabiliko dute ezarpen hori.

Hautatu ondorengoetako bat:

- Soilik harea-kutxan onartzen diren baimenak dituzten sinatu gabeko edukiak exekutatzeko, egin klik **Exekutatu harea-kutxan**. **Exekutatu sinatu gabeko edukia** ezarpenean **Exekutatu harea-kutxan** hautatzen baduzu, baimen bakoitza banaka berrezar dezakezu **Desgaitu** edo **Gaitu** gisa.
- Sinatu gabeko edukia galdetu gabe automatikoki baztertzeke, egin klik **Desgaitu**. **Sinatu gabeko baimen gehigarriak** saileko baimen guztiak **Desgaitu** gisa ezarriko dira eta ezingo dituzu banaka **Gaitu** gisa ezarri.
- Sinatu gabeko edukia galdetu gabe automatikoki onartzeko, egin klik **Gaitu**. **Sinatu gabeko baimen gehigarriak** saileko baimen guztiak **Gaitu** gisa ezarriko dira eta ezingo dituzu banaka **Desgaitu** gisa ezarri.

Sinatutakoen baimenak

Baimenak banaka ezar ditzakezu **Exekutatu sinatutako edukia** ezarpena **Galdetu** gisa ezarriz. Ondoren, baimen bakoitza banaka berrezar dezakezu **Desgaitu** edo **Gaitu** gisa. **Exekutatu sinatutako edukia**ren azpian **Desgaitu** edo **Gaitu** zehazten baduzu, **Sinatutako baimen gehigarriak** saileko baimen guztiek erabiliko dute ezarpen hori.

Hautatu ondorengoetako bat:

- Aurrera jarraitu aurretik zure onarpena eskatzeko, egin klik **Galdetu**. **Exekutatu sinatutako edukia**ren **Galdetu** ezartzen baduzu, **Sinatutako baimen gehigarriak** saileko baimen guztiak **Galdetu** gisa ezarriko dira, baina baimen bakoitza banaka berrezar dezakezu **Desgaitu** edo **Gaitu** gisa.
- Sinatutako edukia galdetu gabe automatikoki baztertzeke, egin klik **Desgaitu**. **Sinatutako baimen gehigarriak** saileko baimen guztiak **Desgaitu** gisa ezarriko dira, eta ezingo dituzu banaka **Galdetu** edo **Gaitu** gisa ezarri.
- Sinatutako edukia galdetu gabe automatikoki onartzeko, egin klik **Gaitu**. **Sinatutako baimen gehigarriak** saileko baimen guztiak **Gaitu** gisa ezarriko dira, eta ezingo dituzu banaka **Galdetu** edo **Desgaitu** gisa ezarri.

Elkarrizketa-koadroa itxi eta egindako aldaketak gordetzen ditu

Egin klik hemen Java baimen guztiak berrezartzeko. Hautatu ondorengoetako bat eta egin klik **Berrezarrin**.

- **Gordetako baimenak** Gordetako azken baimen ezagunak berrezarriko ditu. Gordetako azken ezarpenetatik hona egindako aldaketa guztiak galdu egingo dira.
- **Segurtasun handia** Segurtasun handiko baimenak berrezartzen ditu (babes handienekoa; aplikazioak segurtasun moduan exekutatzeko dira). **Exekutatu sinatutako edukiaren** azpiko baimen guztiak **Galdetu** gisa ezartzen dira eta **Sinatu gabeko baimen gehigarriak** azpikoak **Desgaitu** gisa.
- **Tarteko segurtasuna** Tarteko segurtasuneko baimenak berrezartzen ditu (aplikazioak zenbait babesekin exekutatzeko dira). **Exekutatu sinatutako edukiaren** azpiko baimen guztiak **Galdetu** gisa ezartzen dira (Hazka egiteko espazioa eta Erabiltzaileari zuzendutako fitxategi S/I salbu) eta **Sinatu gabeko baimen gehigarriak** azpikoak **Desgaitu** gisa.
- **Segurtasun txikia** Segurtasun txikiko baimenak berrezartzen ditu (babes gutxienekoa; aplikazioak baimen guztiekin exekutatzeko dira). **Exekutatu sinatutako edukiaren** azpiko baimen guztiak **Gaitu** gisa ezartzen dira eta **Sinatu gabeko baimen gehigarriak** azpikoak **Desgaitu** gisa.

'Ikusi baimenak' fitxa

Baimen hauek sare-administratzaileak zehaztu dituen Java baimenak dira.

Java aplikazio batek fitxategi-atzipena eta ordenadoreko bestelako baliabideak behar izan ditzake exekutatu ahal izateko. Ekintza horietako bakoitza egiteko lehendik baimen espezifiko bat behar da. Sare-administratzaileak zehaztuta izango du zenbat eta zein baimen onartu. Onartzen diren baimenen kasuan, sare-administratzaileak zehazten du baimen horiek eskatzen direnean zuk horren berri izango duzun ala ez. Bestela, Java aplikazioak sare-administratzaileak automatikoki onartutako baimenak baino gehiago eskatzen dituenean jakinaraziko zaizu.

Hiru baimen-sorta daude:

Sinatu gabeko edukientzat gaitutako baimenak Sinadurarik gabe behera kargatutako edukiei ematen zaizkien baimenak

Sinatutako edukientzat gaitutako baimenak Erabiltzailearen oniritzirik behar ez duten baimenak

Sinatutako edukientzat desgaitutako baimenak Erabiltzailearen oniritzia behar duten edo erabat ukatzen diren baimenak

Baimen-goiburuko batean klik bikoitza egiten baduzu, baimen espezifikoak eta zehaztutako ezarpenak ikusiko dituzu.

Sorta horiei ondorengo baimenak eslei dakizkieke:

[Sistema-informazioa](#)

[Islatzea](#)

[Erabiltzaile-interfazearen atzipena](#)

[Fitxategi S/I](#)

[Sareko S/I](#)

[Hariak](#)

[Erabiltzaileari zuzendutako fitxategi S/i](#)

[Bezero-biltegia](#)

[Propietatea](#)

[Exekuzioa](#)

[Inprimaketa](#)

[Erregistroa](#)

[Segurtasuna](#)

[Multimedia](#)

[Pertsonalizatua](#)

Fitxategiak irakurtzeko, idazteko edo ezabatzeko atzipena kontrolatzen duen baimena.

Sare-eragiketak edo sareko ekintzak egiteko gaitasuna kontrolatzen duen baimena.

Hariak eta hari-taldeak sortu eta kudeatzeko gaitasuna kontrolatzen duen baimena.

Sistema-propietate orokorrak atzitu eta kudeatzeko gaitasuna kontrolatzen duen baimena.

Bestelako programak exekutzeko gaitasuna kontrolatzen duen baimena.

Islatze APIak klase jakin bateko kideak atzitzeko erabili ahal izateko gaitasuna kontrolatzen duen baimena.

Inprimaketa-APIen atzipena kontrolatzen duen baimena.

Erregistroa atzitzeko gaitasuna kontrolatzen duen baimena.

java.lang.security JDK segurtasun-klaseen atzipena kontrolatzen duen baimena.

BezeroBiltegi klasean erabilgarri dagoen bezero-alderdiko biltegitzearen atzipena kontrolatzen duen baimena.

AWTaren eginbide hobetuetako batzuk erabiltzeko gaitasuna kontrolatzen duen baimena.

Sistema-informazioaren atzipena kontrolatzen duen baimena.

Fitxategi eragiketak egiteko elkarrizketa-koadroak bistartzeko gaitasuna kontrolatzen duen baimena. Adibidez, aplikazioak fitxategi bat ireki nahi badu, fitxategia irekitzeko elkarrizketa-koadro estandarra erabili beharko du, erabiltzaileak irekiko den fitxategia zen den hauta dezan. Aplikazioak ezingo du bere kasa fitxategirik ireki. Horrela, eragiketa hau zuzeneko fitxategi-atzipena duen kodea baino seguruagoa da, erabiltzailearen parte-hartze zuzena baitago. Baimen hau "Tarteko" segurtasuneko baimena da.

Multimedia-eginbide hobetuen erabilpena kontrolatzen duen baimena.

Eragiketa pertsonalizatuak egiteko gaitasuna kontrolatzen duen baimena.

Informazioa aldi baterako gordetzeko erabil daitekeen 'hazka egiteko' espazioak sortzeko gaitasuna kontrolatzen duen baimena. Aplikazioak ez du erabiltzailearen disko gogorreko beste fitxategietan irakurri edo idazteko baimenik izango. Sinatutako aplikazioak bere 'hazka egiteko' espazio propioa soilik atzi dezake. Baimen hau "Tarteko" segurtasuneko baimena da.

Elkarrizketa-koadroak bistaratzeko gaitasuna kontrolatzen duen baimena.

